



**BILBOKO EKINTZAIETZA DIGITALA LEHIAKETAREN
OINARRI ARAUTZAILEAK
2018**



BILBAO EKINTZA, EPEL (BILBOKO UDALA)

1. ARRAZOIEN AZALPENA

Bilboko Udalak, Bilbao Ekintza, EPEL (aurrerantzean “Bilbao Ekintza”) erakunde publikoaren bitartez antolatu du *Bilboko Ekintzailletza Digitala Lehiaketaren* lehenengo edizioa.

Bilbao Ekintza udal erakundeak, hiriaren sustapen ekonomikoaz arduratzen denak, udalerrian enplegua eta aberastasuna sortu ditzaketen enpresen erakarpena, sorrera eta hazkundera sustatzeko helburua du, besteak beste. Bilbao Ekintzak uste du ekimen berriek eta enpresa proiektu berriek nabarmen laguntzen dutela enplegua sortzen, baita kalitatezko enpresak sortzen ere, batez ere gure udalerrirako interes estrategikoa duten sektoreetan.

Eremu estrategiko horietako bat ekonomia digitalaren sektorea da, izan ere, gure lurraldean dauden administrazioek sektore horren aldeko apustua egiten dute beraien espezializazio estrategien barnean, bereziki, Bilboko Udalak, hiriaren proiektioari eta ekonomiaren garapenari lagundu diezaieken proiektuak martxan jartzen baititu.

Bilboko Udalak ezaugarri horietako proiektuei arreta emateko, proiektuok garatzeko eta kokatzeko espazio ezin hobekak ditu; bereziki BIG Bilbao Ekintzailletza Zentroa eta Bilbao Auzo Factory izeneko Zentroen Sarea.

Ilido horri jarraiki, sektore hori Bilboko udalerrian sustatzeko eta bere barneko proiektuei garapen eta laguntza espezializatuko bideak eskaintzeko, Bilbao Ekintzak *Bilboko Ekintzailletza Digitala Lehiaketaren* lehenengo edizioa antolatu du.

Europar Batasunak, Europako Gizarte Funtsetan 2014-2020 Euskal Autonomia Erkidegorako Programa Eragilearen bitartez, % 50ean batera finantzatu ahal izango du adjudikazio honen ekintza. Beraz, funts horiei buruzko xedapen orokorrak aplikatu beharko dira.

Adierazitakoan oinarrituta, Bilbao Ekintzako Administrazio Kontseiluak 2018ko uztailaren 23an 2018rako egindako bileran, Bilbao Ekintzak kudeatutako Ekintzailletza Digitala Lehiaketaren araubidea onetsi zuen.

2. LEHIAKETAREN XEDEA

Oinarri hauen helburua ekonomia digitalaren sektorearen barneko enpresa ekimenak aukeratzeko lehiaketa arautzea da; sektore hori interes estrategikokoa da udalerrarentzat.

Oinarri hauetako neurrien helburua enpresa proiektu berriak sustatzen dituzten pertsona fisikoei edo juridikoei laguntzea da, lehiaketan parte hartu nahi dutenei, eta hala, sari ekonomikoa eta prestakuntza, aholkularitza eta teknologia alorreko gainerako zerbitzu espezializatuak jaso ahal izango dituzte beraien enpresa proiektuak zuzentasunez eta inguru egokian gauzatu daitezen hasierako fasetik heldutasuna izan arte eta inguru lehiakorrean biziraun ahal izateko trebetasunekin eta ezagutzekin merkatura atera ahal izan arte.

3. ONURAK

3.1. Sariak

Sari hauek egongo dira, bakoitza dagokion zenbatekoarekin:

- 1. Saria: 6.000€
- 2. Saria: 4.000 €
- 3. Saria: 2.000 €

Ordainketa banku transferentzia bidez egingo da onuradunak edo onuradunek adierazitako kontu zenbakian (ikus II. ERANSKINEKO eredu: Bilbao Ekintza hartzekodunaren fitxa) eta hala, oinarri hauetan ezarritako baldintzak bete beharko dira (*ikus honako atala: 4.2 baldintzak*).

Sari horiei dagokien zerga araudia aplikatuko zaie.

3.2. Prestakuntza eta aholkularitza espezializatuko zerbitzuak izatea

Zerbitzu espezializatu horiek aditu talde baten bitartez gauzatuko dira, eta horiek proiektuei laguntza emango diete hasieratik eta garapen fase guztian zehar (batez beste proiektu bakoitzerako taldeko prestakuntzako 10 ordu eta aholkularitza espezializatu eta indibidualizatuko 20 ordu), arlo ezberdinak jorratuz, besteak beste hauek:

- Start up baten bizi zikloa: kontzeptuaren ezaguera eta balioak.
- Erabiltzailearen ikuspegia, ideia gintza eta esperientzia (UX).
- Aukera eta irtenbide berritzaileak.
- Taldea, kompetentziak, konpromisoak eta eraketa.
- Garapen teknikoa eta teknologikoa: GPB; prototipoak, ...
- Merkatu baliozkotzea (business model, bezeroak deskubritzea, marketin digitaleko estrategiak,..)
- Martxan jartzea, garapena: hazkuntza/gora egin ahal izatea.
- Finantzazioa eta laguntzak.
- Beste batzuk, espezifikokoagoak: IOT, Big Data, intelijentzia artifiziala, zibersegurtasuna.

Adituen talde hau erreferentziatzko profesionalek eratuko dute, aipaturako alorretan esperientzia handia dutenek hain zuzen ere.

Aurretik adierazitako sari ekonomikoak jaso dituzten hiru proiektuek zerbitzu horiek izango dituzte, baita lehiaketan aurkeztu direnek eta gutxienez 50 puntu jaso dituztenek ere (*ikus honako atala: aukeraketa irizpideak*).

Era berean, proiektu horiek bestelako prestakuntza eta dinamizazio jardueretan parte hartu ahal izango dute, besteak beste tailerrak, jardunaldiak, networking ekimenak, foroak, etab, betiere beraien jardura eremuarekin lotuta baldin badaude. Horrez gain, BIG Bilbao Ekintzailtza Zentroan eta Bilbao Auzo Factory sarean enpresak sortzeko laguntza ematen duten programa eta zerbitzu ezberdinak jaso ahal izango dituzte, udalerriko ekintzaileentzat eskuragarri daudenak hain zuzen ere.

4. ONURADUNAK ETA BALDINTZAK

4.1. Onuradunak

Lehiaketa honetan parte hartu ahal izango dute enpresa berri bat sortzeko proiektua duten pertsona fisikoek edo erakundeen barnean ekintzailtza arteko proiektua duten pertsona juridikoek.

Erakunde eta sozietate publikoak deialdi honetatik kanpo geratuko dira, baita administrazio publikoetako erakundeak, beraiei lotutakoak edo beraiekiko edozein menpekotasuna dutenak ere.

4.2. Lehiaketan parte hartzeko baldintzak

Eskariak ekonomia digitalaren sektorean garatzen diren produktuak eta zerbitzuak eskaintzeko izan beharko dira.

Beste erakunde batzuetan alor horretako aholkularitza jasotzen ari direnek ezin izango dute parte hartu. (Ikusi III. ERANSKINEKO eredia: Zinpeko adierazpena).

Ezingo dute lehiaketan parte hartu zerga eskakizunak dituzten administrazio publikoekiko betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean ez dituzten pertsona fisiko edo juridikoek. Bilboko Udalarekin duten zerga egoera Bilbao Ekintzak egiaztatuko du ofizioz.

Ezingo dute lehiaketa honetan parte hartu ebazpen irmo bitartez zehapena jaso duten pertsona fisiko edo juridikoek eta horren ondorioz diru-laguntzak eta/edo laguntzak jasotzeko aukera galdu dutenek eta laguntzak jasotzeko legezko debekuren baten barne daudenek. Horien barne egongo dira Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen seigarren azken xedapenaren arabera sexua arrazoi hartuta diskriminazioa gauzatu dutelako zehapena jasotakoak. (Ikusi III. ERANSKINEKO eredia: Zinpeko adierazpena).

Era berean, ezingo dute parte hartu aurretik edozein erakunde publikok emandako laguntzak itzultzeko dituzten (guztiak edo partzialki) pertsona fisiko edo juridikoek, ez baldin bada egiaztatzen itzuli beharreko zenbatekoa ordaindu dela (Ikusi III. ERANSKINEKO eredia: Zinpeko adierazpena).

Enpresa berri bat sortzeko proiektua aurkezten duten pertsona fisikoek Bilboko udalerrian kokatzeko konpromisoa hartuko dute, fiskaltzari dagokionez eta/edo gizarte alorrean (Ikusi III. ERANSKINEKO eredia: Zinpeko adierazpena).

Erakunde barneko ekintzailatza arteko proiektua aurkezten duten pertsona juridikoak altan emanda egon beharko dira JEZen eta identifikazio fiskaleko zenbakia izan beharko dute. Gainera, egoitza fiskala eta/edo soziala Bilbon izan beharko dute.

5. LEHIAKETAN PARTE HARTZEKO PROZEDURA

5.1. Eskakerak aurkeztea

Eskakerak behar bezala beteta eta atal honetan aipatzen den nahitaezko dokumentazioarekin batera aurkeztu beharko dira Bilbao Ekintzako Enpresa Sustapenerako Atalean (Nafarroa kalea 5. zenbakia, 3. solairua, telefono zenbakia: 94 420 53 30) edo BIG Bilbao Ekintzailletza Zentroan (Colon de Larreategui kalea, 3. zenbakia, beheko solairua, telefono zenbakia: 94 420 54 01).

Halaber, posta elektronikoz aurkeztu daitezke eta, horretarako, nahitaezko dokumentazioa hurrengo helbidera igorriko da: **bigbilbao@bilbaoekintza.bilbao.eus**

Nahi dutenek, aurkeztu dutela egiaztatzeko hartu agiri bat jaso ahal izango dute. Ziurtagiria formatu elektronikoa emango zaie proposamena bide elektronikotik aurkeztu dutenei.

Eskariak aurkezteko epea oinarri hauek BAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da, eta 2018ko irailean 20an epean bukatuko da. Eskabideak jasotzeko ordutegia: 09:00etatik 14:00ak arte.

Interesdunek eskaera aurkezteak oinarri hauen edukia onartzea ekarriko du.

5.2. Aurkeztu beharreko dokumentazioa

- Eskaria/Memoria, I. ERANSKINEKO eredu jarraituz.
- Proiektuaren talde sustatzailea eratzen duten pertsona guztien Nortasun Agiri Nazionalaren kopia.
- Proiektuaren talde sustatzailea eratzen duten pertsona guztien Curriculum Vitae-a.
- Administrazio publiko ororekin dauzkaten zerga betebeharrak, baita Gizarte Segurantzarekin dauzkatenak ere, egunean dauzkatela egiaztatzen duten jatorrizko ziurtagiriak. Bilboko Udalarekiko zerga egoera ofizioz egiaztatuko du Bilbao Ekintza EPELe.
- Pertsona juridikoek: eskatzailea ordezkatzeko ahalmena egiaztatzen duen agiriaren fotokopia, JEZen alta emanda dagoenaren kopia eta IFZren kopia.
- III. eranskinaren arabera betetako eta sinatutako zinpeko adierazpena.
- Bilbao Ekintzaren hartzekodunaren fitxa, II. eranskinaren arabera beteta eta sinatuta.

Memoriarekin batera proiektua azaltzen duen gainerako dokumentazio osagarria aurkeztu ahal izango da: aurkezpenak, bideoak, argazkiak, eta abar, proposamena baloratzeko lagungarriak izan daitezkeenak.

Lehiaketa honetan parte hartzeko proposamena aurkezten duten pertsona fisikoek edo juridikoek egindako zinpeko adierazpen guztien egiazkotasunari buruzko ardura bere gain hartzen dute, baita gainerako dokumentazioaren egiazkotasunari buruzko ardura ere.

Eskabideak jaso ondoren, ez badaude erabat beteta edo ez bazaie beharrezko dokumentazio oro atxiki, orduan interesdunei eskaera egingo zaie 10 laneguneko epean falta dena konpondu dezaten edo nahitaezko agiriak aurkeztu ditzaten; horrez gain, ohartarazpena egingo zaie, horrela egin ezean eskaeran atzera egin dutela ulertuko dela, eta beste izapiderik gabe espediente artxibatu egingo da; Bilbao Ekintzak ez du eskaera horren gaineko berariazko ebazpena eman beharko.

Nolanahi ere, aurkeztutako eskaera erabat ulertu eta ebaluatze aldera Bilbao Ekintzak beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio eta informazio osagarri oro eskatu ahaliko die oinarri hauetan jasotako onuradunen eskatzaileei.

5.3. Hautatzeko irizpideak

- Ideiaren interesa eta espero den bideragarritasuna (10 puntu)
- Talde sustatzaileak proiektua arrakastaz garatzeko eta ezartzeko duen gaitasuna (15 puntu)
- Produktuen eta zerbitzuen xede den merkatuaren potentziala (15 puntu)
- Proiektuek jarduera ekonomikoa eta enplegua sortzeko duten potentziala (10 puntu)
- Alderdi berritzaileak eta teknologikoak gehitzea (15 puntu)
- Gora egiteko gaitasuna (10 puntu)
- Proiektuak jasotzen dituen interes sozialeko alderdiak (5 puntu)

Aukeratutako proiektuen gaiak eta edukiak ekonomia digitalaren sektorean garatzen diren produktuak eta zerbitzuak eskaintzeko izan beharko dira, eta Bilbao Ekintzak kanpoan utzi ahal izango ditu hirugarrenen ohorearen aurkakoak diren edukiak eta gizartearen gaitzespena sortu dezaketenak, ordena publikoaren aurkakoak direnak edo legezketasunetik kanpo

daudenak. Horrez gain, eragindako arloaren arabera indarrean dagoen araudia errespetatuz lortutakoak izan beharko dira.

5.4. Lehiaketan aurkeztutako proiektuak aukeratzeko prozesua

5.4.1 Proiektuak aukeratzeko fasea

Aukeraketa prozesua norgehiagoka bidez gauzatuko da.

Lehiaketan aurkeztutako eta gehienezko 80 puntuetatik gutxienez 50 puntu jaso dituzten proiektu guztiek oinarri hauetako 3.2. puntuari ezarritako onurak jaso ahal izango dituzte. Horretarako, Aukeraketa Batzorde bat eratuko da, Bilbao Ekintzaren Zuzendaritza Nagusiak izendatutakoa, eta Bilbao Ekintzako teknikariek eratutakoa. Hala, lehenengo balorazio teknikoaren egingo dute 5.3. puntuari adierazitako aukeraketa irizpideen arabera.

5.4.2. Sari ekonomikoa jaso dezaketen proiektuak baloratzeko fasea

Fase horretan, aurreko fasea gainditu duten proiektuak Balorazio Batzorde baten aurrean defendatu beharko dira, Bilbao Ekintzaren Zuzendaritza Nagusiak izendatutakoa eta Bilbao Ekintzako ordezkariak eratutakoa (Aukeraketa Batzordekoak ez direnak). Horrez gain, ekonomia digitalaren sektorean eremu espezializatu ezberdinetan laguntza emateko proposatutako adituen taldeko ordezkariak ere osatuko dute batzordea. Balorazio Batzorde horrek, hasierako aukeraketa fasean erabilitako irizpide berdinetan oinarrituz, balorazio teknikoaren egingo du, eta deliberazio bitartez puntuazio altuena izango duten hiru proiektuak ebatziko ditu, eta hala, proiektu horiek jaso ahal izango dituzte lehiaketa honetan ezarritako zenbateko ekonomikoak.

Proiektuen defentsa Balorazio Batzordearen aurrean egin beharko da (gehienez ere proiektuko 7 puntu) ezarritako epeetan, behin proiektuak aukeratzeko fasea bukatzen denean.

5.5. Lehiaketaren jakinarazpena

5.5.1 Proiektuak aukeratzeko fasea

Aurkeztutako eskari guztiek mezu elektroniko bidez jasoko dute hasierako balorazio teknikoaren emaitza gehienez ere aurkezteko epea bukatu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita hilabeteko epean.

5.5.2. Sari ekonomikoa jaso dezaketen proiektuak baloratzeko fasea

Fase horretako emaitza eta saria jasoko duten proiektuen izenak defentsaren egunean bertan jakinaraziko dira, Balorazio Batzordearen deliberazioaren ondoren.

6. BETEBEHARRAK, EZ-BETETZEAK ETA LAGUNTZEN ITZULKETA

6.1 Onuradunen betebeharrak

- Proiektua garatzeko ahalmen egokia izatea.
- Oinarri hauen esparruan garatzen diren prestakuntza saioetan eta/edo aholkularitza saioetan parte hartzea.
- Bilbao Ekintzako arduradunei proiektuaren garapenari buruzko informazioa ematea.
- Era berean, programa honetan parte hartzeko aukera eman dieten proiektuen garapena eta baldintzak aldatzen badira, unean-unean jakinaraziko zaio Bilbao Ekintzari.

6.2 Ez-betetzeak

Lehiaketa honen oinarri diren baldintza eta betebeharrak betetzen ez dituzten proiektu parte-hartzaileak lehiaketatik kanpo geratuko dira.

7. AURREKONTU ESLEIPENA

Bilbao Ekintzak honako aurrekontu partidak bideratuko ditu lehiaketa honentzat:

- | | |
|--|-----------------|
| - Hiru sari dirutan | 12.000,00 euro. |
| - Prestakuntza eta aholkularitza espezializatuko zerbitzuak: | 38.000,00 euro. |

Oharra: Kontratatu den prestakuntza eta aholkularitza espezializatuko zerbitzua, gehiegizko aurrekontua baldin badago, Bilbao Ekintzan aurkeztutako beste proiektu batzuei laguntza emateko erabili ahal izango da, deialdi honetatik kanpo daudenei eta interesekoak direnei hain zuzen ere.

8. KONFIDENTZIALTASUNA

Lehiaketa honetako oinarrien esparruan sortutako informazioa bakarrik alor horretako helburuetarako erabiliko da, eta datu pertsonalak eta enpresakoak konfidentziasunez erabiltzen direla bermatuko da, oinarri hauetan publizitateari dagokionez jasotako ahalmenak albo batera utzi gabe.

Edonola ere, ezaugarri orokorrak hedatu ahal izango dira, eta unea iristen denean baita proiektu irabazleen izenak, beraien jarduera, lortutako emaitza nagusiak eta talde sustatzailea osatzen duten pertsonen izenak ere.

9. PUBLIZITATEA

Bilbao Ekintzaren logotipoa, baita adieraziko diren gainerakoak ere, onuradunek sortutako material inprimatuetan erabili ahal izango da (kartelak, liburuxkak, informazio orriak...), oroitzapenezko plaketan, baliabide elektronikoetan edo ikus-entzunezko baliabideetan edo idatzizko komunikabideetan argitaratzen dituzten iragarkietan, aurretik Bilbao Ekintzan eskaria aurkeztuta eta horrek oniritzia emanda.

10. PROIEKTUEN JABEGOA

Jabeko intelektuala eta materiala eta proiektuaren ustiapen industrialak lehiaketa honetan aurkeztutako proiektuen sustatzaileena izango da.

11. DATU PERTSONALEN BABESA

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoarekin bat, Bilbao Ekintzak adierazten du programa honetan parte hartzearen ondorioz agirietan jasota geratzen diren datu pertsonalak berariazko fitxategi batean gordeko direla. Fitxategia, Bilbao Ekintza EPELen titulartasuneko izango da. Helbidea hau da: Nafarroa kaleko 5. zenbakia, 48001 – Bilbo. Hala, helburua ematen dituen zerbitzuak kudeatzea eta datuen segurtasun osoa bermatzeko segurtasun neurriak izatea da. Gainera, datuak lagatzeko baimena emango du aholkularitzei, erakunde publikoei, fundazioei, elkarteei edo finantza erakundeei. DBLOk beren-beregi aintzatesten dituen sartzeko, zuzentzeko, baliogabetzeko eta aurka egiteko eskubideak erabili ahalko ditu, Bilbao Ekintzari idatzizko jakinarazpena bidaliz.

12. BESTE BALDINTZA OROKOR BATZUK

Bilbao Ekintzak eskubidea gordeta du egoera zalantzarrietan oinarri hauek interpretatzeko eta bere erabakiak behin betikoak izango dira.

Lehiaketa honetan parte hartzean, guztiz onartuko dituzte oinarriak parte-hartzaile guztiek.

13. OINARRI HAUEN INDARRALDIA ETA GARAPENA LEHIAKETAN

Lehiaketa honen oinarriak onetsi ondoren aurkezten diren eskariei aplikatuko zaizkie, baita 5.1. atalean adierazitako eskariak aurkezteko epean zehar ere. Epe hori luzatu egin ahal izango da Administrazio Batzordeak hala erabakita.

Oinarriak indarrean dauden bitartean, bertan kontuan hartzen diren alderdietako baten bat garatu behar bada edo programa funtsean aldatzen ez duen egokitzapenen bat egin behar bada, Administrazio Batzordeak eskumena ematen dio Bilbao Ekintza EPELen Zuzendaritzari aldaketa horiek egiteko. Zuzendaritzak aldaketak egin ondorengo lehen bileran emango dio Batzordeari aldaketen berri.

14. PROIEKTUAK GARATZEKO BALDINTZAK

Proiektu parte-hartzaileen garapena ezin izango da edozein legezko bitartekoetan hirugarrenei aintzatetsitako eskubideen kontrakoa izan, bai nazionalak baita nazioartekoak ere, eta ondorio horien barne egongo da Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala.

Era berean, 1083/2006 Araubidearen (EB) I. tituluko IV. kapituluko 16. eta 17. artikuluei jarraiki, Bilbao Ekintzak enpresentzat eta enpresak sortzeko proiektuentzat eskuragarri jartzen dituen baliabideen bitartez, erakunde onuradunek gauzatuko duten merkataritza praktikak errespetatu egin beharko ditu araubide horretako irizpideak. Beraz, garapen iraunkorarekin eta ingurumena sustatzearekin, babestearekin eta hobetzearekin lotutako praktika onei buruzko sentsibilizazio lana gauzatuko da, baita enpresen barnean bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa kontziliatzeari buruzkoa ere. Halaber, sexuan, arrazan edo jatorri etnikoan, erlijioan zein sinesteetan, desgaitasunean, adinean edo sexu orientazioan oinarritutako diskriminazioaren aurka eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde egingo da.

Bukatzeko, Euskal Autonomia Elkarteko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuarekin bat eginez, onuradunek proiektua eratzean eta garatzean lehentasunez euskara eta gaztelania erabiliko dituzte, albo batera utzi gabe beste hizkuntza batzuk erabiltzea proiektuak hala eskatzen duenean.